

Kontsulta Legea: aurten txupinazoa EHAKren esku

Astebete falta da Eusko Legebiltzarraren gainean zerua jausiko den ala ez jakin dezagun. Seguruenik halakorik ez da gertatuko, fisikoki bederen, eta bertan izango direnek lasai egin ahalko dute lo. Guztiek? Guztiek ez, Ibarretxe lehendakariak behintzat ez, eta berarekin batera Jaurlaritza osatzen duten EA eta Ezker Batuko kideek ere ez. Orrialdeotan, halaber, euskal kultura eta gizarteko zortzi herritar ezagunek Jaurlaritzak proposatutako kontsultaz duten iritzia bildu ditu Mikel Asurmendik.

XABIER LETONA



Jose Luis Rodríguez Zapatero eta Juan Jose Ibarretxe maiatzaren 16an bildu ziren Moncloan eta espainiar gobernu buruak ezezko borobila eman zion lehendakariak egin zion negoziazio proposamenari.

HILAREN 27AN bozkatuko da Eusko Legebiltzarrean Jaurlaritzak aurkeztutako Kontsulta Legea. Hartu edo utzi, bai ala ez. Aurrera atera dadin, tarteko bideak ez du balio. Ezezkoaren aldean dira PSEren (18) eta

PPren (15) parlamentariak, konstituzio harresiaren ostean ondo babes-tuak. Hirukoak 31 eta Aralarko boto bakarrarekin 32, eta PSEk eta PPk beste 32. Parra. Hori da ezagutzen dugun emaitza. EHAK-ko 9 legebil-

tzarkideen esku dago balantzak zanga handiaren alde batera edo bestera egitea.

Baiezkoa aterako balitz, teorian herritarrek jadanik aski ezagunak diren bi galderak erantzun beharko

lituzkete datorren urriaren 25ean: lehena ETArekiko elkarriketari buruzkoa eta bigarrena erabaki eskubidea egituratuko duen akordioa lantzeari buruzkoa. Kontsentzu nahiko zabala dago zerbaiten inguruan: galderek EHAKren baiezkorako atea zabaltzen dutela, besterik ez bada, 2004ko abenduan Estatutu Berriaren proposamenarekin Batasunak egin zuen bezala, baiezko kritikoa eskainiz.

Baiezkoarekin ezker abertzaleak badaki ondoren Espainiako Gobernuaren helegitea etorriko dela, eta badaki kasu horretan bere botoak jeltzale eta hirukoaren hauteskunde lasterketa sendotzeko erabiliko direla, ez baitu uste kontsultarik egingo denik, gainerako gehienek bezala. Baina badaki, halaber, horrek kontraesanak sor ditzakeela jeltzaleen artean, hirukoan edota Moncloa eta Ajuria Eneko harremanetan.

Ezezkoak Ibarretxe lehendakaria eta hirukoa oso egoera gaitzean jarriko lituzke, hauteskundeak aurreratu-ko lirake berehalakoan –iazko irail-lean lehendakariak esandakoaren

arabera behintzat– eta bere etorki-zun politikoa erabat kolokan legoke. Euskal gizarteak ekimen honi sostengurik eman ezean etxera joango dela iragarri du, eta Eusko Legebiltzarra EAeko herritarren ordezkari den heinean, ondorioa begi bistakoa da. Edozein modutan, ez dago argi dimisioa kontsultako balizko ezezkoaren ondorio litzatekeen edo Legebiltzarraren ezetza ere etxera joateko aintzat hartuko lukeen.

Baina osoko bilkurara iritsi aurretik ere, proiektua zangotrabatzeko ahaleginen artean PPrena nabarmendu behar. 1998an Unidad Alavesako Enriqueta Benitok Arabarako egin zuen erreferendum proposamena ekarri dute mahai gainera, eta azpimarratzen dutenez, orduan abertzaleek Gernikako Estatutuak kontsultarako eskumenik ez zuela argudiatu zuten proposamenari ezezkoa emateko.

Horrez gain, Legebiltzarreko Mahaiak Kontsulta Legea bigarren goz onesten badu, PPK agian helegitea jarriko dio Auzitegi Konstituzional-lean, zuzenketarako eskubiderik ez dutela izan argudiatuz. Mahaiak,

Madrilek auzi juridikoa erabiltzen du arma gisa eta Jaurilaritzak balizko kontsultaren indarra; legearen indarra versus zuzenean adierazitako herritarren borondatea

ordea, egin dezake horrelakorik, bai erabakia aho batez onartuz, bai gaiaren berezitasunak hala eskatzen duenean. Eta hirukoaren aburuz, gaiak badu nahiko berezitasun horrela bideratzeko. *El Correo*-k, adibidez, PPren jokaldi honek 27ko osoko bilkura bera uda osterarte atzerarazi lezakeela aipatzen zuen duela bi aste. *El País*-ek, aldiz, joan den astean zioen Zapatero bera ari zela pentsatzen helegitea noiz aurkeztu, orain ala uda ostean, horretarako hiru hilabete ditu eta.

Madrilgo helegitearen funtsa

Argi dago arazoa ez dela juridikoa

Bi trenen arteko talka dator



Mikel Iturría,
blogaria

Inoiz baino urrunago sentitu dut Ibarretxek proposaturiko bi galderak direla-eta sortu den burrunba, gero eta gehiago baitut gustuko oftean egotea.

1998ko urrian eginiko hauteskundeen ondoren lortu zuen Ibarretxek lehendakari izatea eta urte bereko irailean hildako

Poch musikari donostiarrak egin zuen *Dios salve al lendakari* kantua, Negu Gorriak-ek euskaratu zuena gero, *Jainkoak gorde beza lehendakaria*.

Abesti hori jarri zuen blogean Eduardo Madina diputatu sozialistak bi galderak ezagutzera eman zirenean. Patxi Lópezek, berriz, hautagaiaren rolean, balorazioa ipini zuen eta berau ez irakurtzea deliberratu nuen.

Azken finean, Alberto Moyano komentaria politikarekin (batzuetan) nago ados. Hau da, bi trenen arteko talka datorrela, baina sorginarena dela bata, txu-txu trena dela bestea.

Abenturari beldur?



Elizaabete Garmendia,
kazetaria

eginda: kontsultaren ilegaltasuna, momentu desegokia, elektoralismo hutsa, zehaztasun falta, gizarteaz zatitu besterik ez duela egiten halako kinkan jartzeak...

Xehetasun ideologikoetan sartu gabe, ezagurri batek berdintzen ditu jarrera horiek denak: bertan-goxokeria, inmovilismoa.

Badira aste batzuk gure lantokiko jangelan, bazkal garaian, kontsultaren gaiarekin tratatzen gara. Eta gure sesio horietan –sesio, euskarazko adieran– hedabide handienek aireratzen dituzten argudio guztiak entzuten dira, nork bere

Zapaterok mespretxuz erabili zuen “abentura” hitza Ibarretxeren proposamena izendatzeko. Ez dakit ez ote dugun aldarrikatu behar, ze badirudi, askorentzat, *paint-ball*era mugatzen dela abenturarako aukera bakarra.

edo behintzat hori ez dela arlorik garrantzitsuen. Borondate politiko-rik balitz, arazo juridikoa bigarren mailakoa litzateke, eta dauden ikuspegi kontrajarriak eztabaida politikoaren eremuan jorratuko lirateke. Hori da azken finean urriaren 25eko kontsultarako eskatzen dena. Madril-ek auzi juridikoa erabiltzen du arma gisa eta Jaurlaritzak balizko kontsul-taren indarra. Legearen indarra ver-sus zuzenean adierazitako herrita-rren borondatea.

Edozein modutan, honakoa da auzi juridikoaren muinean dagoen ideia borroka. PSOEren Gobernuaren ustez, lege proposamenak Konstituzioa urratzen du, errefe-rendumak Estatuko gobernuaren eskumena direlako eta, edozein kasutan, autonomia batek herri



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

EHAK-k dauka 27an Kontsulta
Legea ateratzeko giltza eta
oso posible da 2004an
bezala, beren botoak banatu
eta proposamenari atea
irekitzea. PSEren eta PPren
botoa, aldiz, ezezko borobila
izango da.

Demokrazian herriak erabakitzen du

Kulturaren sektorean historikoki erne gara politiko edo gizarte gaiekin: gizartearen mirailaren ofizioa usu izaten ahal dira sortzailleen obrak. Beraz nahiz eta maiz beste lur batean izatea diruditen, kultur eragileek Euskal Herriko gorabeherak beren auzokoak bezala bizitzen dituzte.

Orduan, Eusko Jaurlaritzaren ekimena gure solasaldietako gai bat izan da ere, eta pentsatzen ahal den bezala, iritzi desberdinak sortu dira. Baina nire ingurukoekin bat egon gara funtsezko argudio batekin: demokrazian herriak erabakitzen du. Demokrazia



*Filgi Claverie Michelena,
kultur arduraduna*

modernoaren oinarria herriari bere iritzia eskatzea da. Hastapen hori ez errespetatzea, demokraziaren lehen printzipioa istikatzea da.

Herri hau ez dute politikariek eraikiko

Urrun gelditzen dira bai Ibarretxe eta bai Jaurlaritza. Han, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba punta horretan. Eni, egia erran, egun guziz *Berria* irakurri eta *Euskadi Irratiko* berriak entzuten ditudan honi, hurbilago, baina oso gutxiengoa naiz Itsasun eta bere inguru hauetan.

Ilusio pixkat sortzen dit Euskal Herriaren zati bati autogobernuaz galdetzeak, beste bi zati nagusientzat erreferentzia izan daitekeelako, eta hemengo agintarien inkontzienteetan bederen eragin baikorra sortuko lukeelako balizko autogobernu nahiak. Baina garai hauetan, deskonfiantza ere



*Aitor Sarasua,
Seaskako irakaslea*

sortzen dit Jaurlaritzak, EAJk, eta orain arte bezala bere interesak herri honen interesen aitzinetik ez ote dituen jartzen pentsatzen dut, ez ote diren hauek denak Ibarretxek eta EAJk protagonismoa ez galtzeko jukutriak.

Gainera, herri hau ez dute politikariek eraikiko, guk herritarrok eraikiko dugu.

kontsulta bidez bideratutako erreferenduma Espainiako Gobernuak lehendakariaren baimena behar duelako. Konstituzioaren hainbat artikulua erabili ditzake horretarako, bai 92.a edota 149.1.32.a.

Eusko Jaurlaritzak, aldiz, Gernikako Estatutuaren 9.2 artikulua atera du kapelatik eta honen arabera, "Eusko Jaurlaritzak erraztu beharko luke bere herritarrek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzea". Kontsulta ez dela loteslea argudiatzen da eta, beraz, erabat zilegi eta legezkoa. 2010erako proposatzen dena bai, hori loteslea litzateke eta ETArek biolentziarik gabeko testuinguruan gauzatzea.

Ez da burua asko berotu behar Auzitegi Konstituzionalak zer egingo duen edo arrazoiak nori emango dion asmatzeko. Ondorengoak dira prozeduraren tempusak: Espainiako Gobernuak hiru hilabete ditu helegitea aurkezteko eta bere egutegirako gehien komeni zaionean egingo du.

**Gizarte eskoziarrak
begirunez ikusten du
erreferenduma eta inork
gutxi jarriko du zalantzan
horretarako eskubidea
badenik, ezta
independentziaren aurkako
den alderdi laboristak ere**

Konstituzionalak bost hilabete ditu erantzuteko eta, beraz, horrek esan nahi du baiezkoren hipotesian, hauteskunde autonomikoak 2009ko urtarrilean edo otsailean izan daitezkeela.


Kontsultak Espainian eta munduan

Konstituzionalak hainbat arrazoi izan dezake Kontsulta Legea atzera botatzeko, baina ez da samurra izango

ulertzea nola izan daitekeen zerbait konstituzionala Katalunia eta Andaluzian —hango estatutu berrien esku-duntzetan da herri kontsultarena— eta EAEn ez. Edozein modutan, Katalunian ere ez dago argi bertako gobernu autonomikoak edozer jarri dezakeen kontsultara Espainiako Gobernuak lehendakariaren baimenik barik. Apirilaren bukaeran bukatu zuen aurreproiektu legea Generalitateak eta datozen hilabeteetan Zapateroren jarrera ikusteko aukera izango da. Gaiaren zeruertzean da 2014rako Josep-Lluís Carod-Rovirak autodeterminazio erreferendumaz egin duen proposamena.

Gauean dagoena 2010. urtea da, eta hori da Eskoziako SNP alderdi abertzaleak independentzia erreferendumerako jarritako data. Funtsen, gizarte eskoziarrak begirunez ikusten du erreferenduma, eta inork gutxi jarriko du zalantzan horretarako eskubiderik badenik. Eskozian oposizioan dagoen alderdi laborista berak ere —independentziaren aurka-

Hauteskunde interesak alboratzeko ordua da



*Sonia Gonzalez,
idazlea*

nazioa dela denok gara jakitun, eta nazioa garen heinean, erabakitze eskubidea eduki beharko genuke, ezelango baldintza barik.

Baina erabakitze eskubidea ez da galdeketa hutsean hasten eta amaitzen, are gutxiago horren atzean negoziatzorik ez badago, helburu argirik ez badauka, Euskal Herri osoa kontuan hartzen ez badu eta, debekuen aurrean, aurrera egiteko benetako borondatearik ez badago. Amarru, koiuntura eta hauteskunde interesak alboratu eta gatazka politikoari behingoz ekingo dion konponbidea behar dugu. Arduraz jokatzeko sasoia da.

Euskal kulturak herri oso bat batzen du, ez da komunitate autonomo deritzon entelekia batena, ezta beste herri guztiz ezberdin bateko adierazpen folkloriko hutsa. Euskara eta euskal kulturaren biziraupena, gure herriaren garapen sozial eta ekonomikoa bezala, ezin dira erabaki eta egituraketa politikoetatik banandu. Euskal Herria

Konplotaren teorien sinesten dut



*Aumontxi Arana,
idazlea*

taren teorien sinesten dut engoitik. Estatuak ETAk segi dezala nahia du, ez sobera indartsu, bistan da; eta halere ETA aitzina jotzeko prest.

Gerla txiki baino odoltsu horretan, euskaldun askok geure burua tinkaturik sentitzen dugu, intxaur bat bezala kraskagailuaren bi adarren artean. Badakigu zer kaltegarri zaigun holako borroka, baina beligerante bat pozik da eta besteari bost axola.

Jaurlaritzaren proposamena zentzuduna da eta baietza ematen diot, kraskagailua laxa dezakeelakoa. Lastima, beligerante batek edo besteak oztopatuko du.

Edo intxaur paranoia-dun baten zinkuriak baizik ez dira hauek?

Ibarretxeren kontsultako galdera nahasia iruditu zitzaidan; oso argia, aldiz, Espainiako Gobernuaren arbuioa: "non mina han mihia". Handik laster Bordeleko atxilotetak gertatu ziren eta orduan zalantzarik ez: mihia ez zen aski eta minari enplastoa ezarri behar.

Ageri zen ETA tresnagisa erabili zuela Estatuak, ez da lehen aldia. Konplo-

koa— ez du halakorik buruan. Laboristek erreferenduma ahalik eta lasterren egitea nahi dute, besteak beste ikusten ari direlako gero eta herritar gehiago ari dela independentziaren aldeko galdi gainera igotzen.

Ezaguna da Suedian, Suitzan eta Amerikako Estatu Batuetan, besteak beste, maiz erabiltzen dela herri kontsultaren tresna. AEBtan legebiltzarrek onartutako edozein lege erreferendumera eraman daiteke herritar kopuru batek hala eskatzen badu: Kalifornian, adibidez, gobernadorearen azken hauteskundeetako boto emaleen %5ek. 26 estatutan herritarrek eska dezakete hautetsiak erreferendumez aldatzea, baldin eta azken hauteskunde egunean botoa emandakoen %25ek hala eskatzen badu. Suitzan edozein lege eraman daiteke erreferendumera, baldin eta legea onartu eta ehun egun baino lehen 50.000 herritarrek hala eskatzen badute.

EAJren baitako tentsioak

Baina tentsio guztiak ez dira alderdi

abertzale eta ez abertzaleen artean. Jeltzaleen baitan ere ez dira gutxi izan tirabirak eta Ibarretxerekiko desberdintasunak. Esanguratsuena 2007ko uztaillean Josu Jon Imaz artean

**EAJren baitan tentsioak
ugariak izan dira,
EBBk ezin izan dio eutsi
Ibarretxe lehendakariaren
bultzadari eta, azkenean,
honen lidergoa gailendu da.
Horretan lagun izan du
sektore soberanistena**


EBBko lehendakari zela idatzitako “Ez inposatu, ez eragotzi” artikulua, su-etenaren ostean kontsulta egitea guztiz desgokia zela azalduz. Geroxeago ere, urrian, Bilboko alkateak argi adierazi zuen Radio Euskadin

egindako elkarrizketan proposamenak ez ziola kilima berezirik egiten, besteak beste, akordio zabalagoen aldekoa delako eta EHAKren balizko sostenguarekin ateratzeak tripako mina emango liokeelako.

Azkenetakoa duela gutxi izan da, eta sonatua, Bilboko hitzaldi batean Jose Luis Bilbaok EAJ-PSE akordioaren aldeko apustu tinkoa egin zuen eta Jaurilaritzako hiruko gobernua agortutzat eman. Ezin esan Ibarretxe-Zapateroren bileraren ia bezperan halakoak adieraztea lehendakariari besarkada beroa ematea denik. Baina barne mailan desadostasunak eta eztabaidak dezente gehiago izan dira, eta sarritan hainbat buruzagi publikoren adierazpenetan ere azaleratu dira. EBBk ezin izan dio eutsi Ibarretxe lehendakariaren bultzadari eta, azkenean, honen lidergoa gailendu da. Eta horretan lagun izan du sektore soberanistena. Arriskuaren aldeko apustua egin du jeltzaleen egungo lider eztabaidaezinak eta emaitzak laster izango dira ikusgai. ■

Herriak. hitza eta bakea

Bakea eta hitza zor zaizkio herriari. Ni horretan nago. Ibarretxe lehendakariak Jaurilaritzarekin Legebiltzarrean aurkeztu eta gizarteratu duen ekimenak herriari bakea ekartzeko urratsa izan nahi du. Inor zokoratu gabe, bakeranzko erabakia guztion artean eta guztiontzako hartzea du xede. Egon gaitezke nekatuta, aspertuta. Baina ez etsita. Hamaika hitz jaten dugu komunikabideen eltzetik. Orain, gure ordua da. Geuk hitz egin behar dugu esanez bakea benetako elkarrizketaren bidez egin behar dela, bai ETari dagokionean bai Euskal Herri barruko harremanean bai Espainiarekikoan. Auzi



Marije Arregi
Espetxe
Pastoraltzako kidea
(Gipuzkoako Eliza).

honetan dena ez da libre. Luzamendutan ibiltzeak sufrimendu handiegia ekarri digu denoi. Galde diezagutela, eta herri-ordezkariek bete dezatela herriaren esana. Munduko beste aldeetan hala egiten da egiazko bakea. Eta gurean ere bai.

Giro politikoak landuago behar luke



Erramun Landa,
EHUko arte irakaslea

Galdeketa egitearekin ados nago, baina gauza normala izatea nahi nuke, erreferendumen falta dago. Adibidez, AHTz ere galdetu beharko litzateke. Galdetzeak ekimen normalizatu izan behar luke, ez gauza berezia. Galdeketa normalizatu gizarteratu behar da.

Garaia da denok apur bat emankorrak izateko, baina tamalez elkarren aurka ari gara. Ez dago debaterik. Egungo giro politikoa botereak inposatua da. Esaterako, ematen du EAJk ez duela guztiz babes-ten Jaurilaritzaren ekimena, Ajuria Enetik bultzatutako betebeharra ikusten dut. Galdeketa egin ezean Ibarretxerenak egin duela dirudi: “Ez ahaztu nitaz, hau

azken aukera da”. Galdeketa baldintza demokratikoak eta eztabaida politikoa zabaltzeko balitz, nik baietz esango nioke galdeketa. Galdeketa gogoetarako abiapuntua izan behar luke, galdeketa kultura gizarteratzeko, baina giroa gizar-terako beste esparrutan dago, politika oso geldoa ikusten dut, eta pena ematen dit. Giro politikoak landuago izan behar luke adierazpen askatasuna gauzatu dadin.